

Irailean barrero be leenera

Iraila aitatzeak gauza asko esan gura ditu. Ikasturtean zerbait aprobatu barik itzi daben ikasleentzat, euren aalegintan garaile urtetako aukera barria esan gura dau; oporraldia amaitu dalako, liburu mordoak besapean arturik, eskolarako bidean barrero abiatzea ikasten dabizantzat; umeentzako liburuak eta eskolarako materialak erosi bear dituen gurasoentzat, diruari nondik tenga asi bear daben asmetako buruasteak, etab., etab.

Eta abar luze orreen artean, Bizkaiko kristinauontzat, Eleizbarrutiko Batzar Nagusiaz barrero arduratzen asi eta emoten jakuzan gaiak aztertzen joateko adore barria artzen joateko sasoa esan bearko dau.

Bizkaiko kristinauok, azken bolada onetan, Eleizbarrutiko Batzar Nagusia-rena dogu arazorik larriena eta beinena. Aspaldi bota euskuen gure Gotzainak euren deia eta leenengo pausoa emonda daukagu gainera. Bakoitzak aukeratu eban taldeko gaiaren inguruan ainbeste gauza ikusi genduzan, ainbeste balio aurkitu genduzan, urte gitxiren buruan gure artean gertatu diran ainbat kultur giro aldakuntzaren testigu izanak gara. Gaiari begira begira jarririk, gure fedea bizi dogun ingurugiroan aztertu bear genduan jasotako gaia. Maiatzean amaitu zan leenengo pausu ori.

Arazoa esku artean dabela jardun izan dabe mordo batek arrezkero. Bigarren pausua gertatzen diarduenak zeregin luzeak izan ditue. Leenengoan *ikusi* egin bear bagenduan, bigarreanean *epaitu* egin bearko dogu, geure eritzia emon. Eta orretarako pausok abiatu rik bada- goz be, irailaren inguruan barriren barri

ekingo deuskue, arduraz eta kontzientziaz, aalik eta geinak parte artu daigula eskatzen.

Arazoa serioa da benetan, eta etorkizunari begira frutu ederrik ugari ekarri leikeala emoten dau. Orain artean, eleizako arazoetan, fede-eziketan, eleizgizonak eta mojak izan dira arduratu bear eben bakarrak. Beno, arduratu bear eben bakarrak ez, baina oitureari jarraiturik, orrelantxe jokatu dogu geienbaten.

Baina eleizgizonak urritu egin dira, eta asko gainera, mojak urritzen doaz, bizibide orretarako bokazioak oso meatz erneten dira gaurko egunean; bizitza osoa zearko katekesiak bear-bearezko ikusten dira, teoria mailan, baina, praktikan, taldeak urriago sortzen dira; beste leku batzuetan ainbeste ugaritu diran abade edo fraile ez diran krsitinau alkarteen buru eta arduradunak emen be prestatzen joateari ondo deritxogu, baina pausok emoten asteko bildur gara... Orreek danok eta beste mila arazok urten bearko dabe Bizkaiko Elizbarrutiko Batzar Nagusian. Emendik amar amabost urtera eukiko dogun egoerarako aurretiaz prestatzen joatea esan gura dau guzti orrek.

Irailean asi eta gainerako ilabeteetan berba eta pausu garrantzitsuak emon bearko ditugu, gaiak be merezi dau eta aurrera, jasorik daukagun konpromisuari adore barriz erantzutera.